

12-18 urte. Familiaren papera nerabeen sexu heziketan



SAMUEL DIEZ ARRESE

*Koire Sexologia Zentroko Arduraduna (Donostia)
Alcala de Henares Unibertsitateko (Madril) In.Ci.Sex
Sexologia Masterreko irakaslea*



Nabarmendu beharra dago XXI. mendean gaudela eta ez gairela zerotik hasten Sexu Heziketaren arloan. Horrek esan nahi du gauza asko dakizkigula, beharbada jakin beharreko guztia jakin ez arren.

Esaterako, jakin badakigu Sexu Heziketa guztion arduradela. Eta guztiona dela esaten dugunean: familia, ikastetxeak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko programak (Ludoteka, Gazteleku, etab...), Instituzioak, Udal Teknikariak, komunikabideak, aisialdiko taldeak, osasun zentroak, etab... esaten ari gara.

Neska edo mutil batek pasatzen dituen aroak mailakatuak dira, eta inork ez ditu bat-batean 16 urte. Hori dela eta, aurretik esandakoak garrantzi handia izango du.

Izan ere, Sexuaz, Sexualitateaz edo Harreman Erotikoaz ulertzen dugunaren arabera, gauza batzuk eta ez beste batzuk adieraziko ditugu gure sexu heziketan. Familiak "zer egin", eta batez ere, "nola" edo "noiz egin" behar duten galdetzen dute.

Sexua *maitasuna egitea* dela uste badugu, ez da harrizkoa "oraindik ez", edo gubienez "*maitasuna kontuz egin*" bezalakoak esatea, gauza jakina baita, maitasuna eginez gero edo genitalak elkar ukituz gero, infekzioak transmititu daitezkeela eta haurdun geratzeko arriskua dagoela. Horiek horrela, ez da harrizkoa ere, debekua eta zigorra aukeratzea eta, era berean, beldurra sartzea, askotan "kontu txarrak" saihestearren egiten baita hori.

Sexua plazerrarekin eta orgasmoarekin lotzen badugu, ez da harrizkoa azalpenak trikimailuak, trebetasunak, abileziak garatzera eta, edonola ere, "*maitasuna ondo egitea*" bideratuta egotea. Ez da harrizkoa ere seme-alabekin gauza horietaz hitz egitean lotsatzea, urduritzea eta zalantzak sortzea, izan ere, askotan, norberaren bizipenetan oinarrituta egiten baita hori. Alegia, gure intimitatearen kontura.

Alabaina, sexua garena dela (emakumeak eta gizonak gairela) uste badugu, orduan beharbada gauza zertxobait aldatzen da. Horrelakoetan, familiak asko lagundu dezake neska-mutilek gizon eta emakume modu egokian bihurtzeko.

Badakigu poz gehiena desioetik eta ez betebeharetik abiatuta lortzen dugula, hau da, nahi dugunarekin koherenteak garenean. Eta hori guztiarentzat da baliagarria, baita nera-beentzat ere.

Era berean, badakigu nerabezaroan *sexu-harreman asko* "daudela nahitaez desioari erantzuten ez dioteriak, horixe baita "egin behar dena edo "tokatzen dena". Bixia bada ere, hori ere asko gertatzen da helduen artean. Alabaina, hala-

koetan, gizonagoa edo gizon osoa, emakumeagoa edo emakume osoa izatearekin lotuta dago jeneralean.

Idea eta planteamendu asko daude aurretik jakinarazi daitezkeenak, gizona edo emakumea izatearen esanahiari buruzkoak. Inor ez da gizonagoa edo emakumeagoa hau edo bestea egiteagatik. Hori argi daukagu.

Hartara, izateko modu ezberdinak kontuan hartzen dituzten eredu ireki eta malguak hasieratik eskaintzen badiugu, beharbada ez dute ekintzaren bidez jada direna direla frogatu behar. Bixia bada ere, hortik, gizon edo emakume izatea lortzeko ekintza horiek batera lantzen ari gara.

Bada taktika bat askotan erabiltzen dena: haiek galde-tu arte itxarotea. Alabaina, galdera ez bada 17 urte arte iristen, beharbada berandu izan daiteke. Bestalde, galdera iristen denean ordubete ematen badugu erantzuten (metatzen joan den guztia esan behar da), beharbada bitan pentsatuko dute berriro galdetu baino lehen.

Horregatik da interesgarria galdetzen digutenari buruz eta garrantzitsua iruditzen zaigunari buruz hitz egitea. Baina planteamendu horrek arau batzuk ditu tranparik ez egiteko.

Garrantzitsua iruditzen zaigunari buruz hitz egiten badugu, garrantzitsua dela iruditzen **zaigunean** egiten dugu eta ez dugu itxaroten premiazkoa izan arte. Horrek esan nahi du kontatzen diogula, galderarik egon ez arren.

Garrantzitsua iruditzen zaigunari buruz hitz egiten badugu, garrantzitsua dela iruditzen **zaigulako** egiten dugu eta ez gero haiek gauzak kontatzeko, hori tranpa baita inondik ere. Horrek esan nahi du agian bakarrizketa batean hitz egiten dugula.

Nerabeekin hitz egitea baldin bada egokiena, hitz egiten ikasi behar da eta hitz egiten ikasteko entzuten ikasi behar da. Horregatik behar-beharrezkoa da entzun gaitzaten.

Benetan interesgarria dena da jakitea eta ulertzea, behar edo nahi izanez gero, familia hitz egin daitezkeen espazio bat dela, batzuek zein besteek esaten dutenarekin ados egon ala ez. Izan ere, hitz egin daitezkeen leku batean errazagoa da noizbait galderak sortzea. Berriz ere "horri buruz" eta gauza gehiagori buruz.

Egilearen jatorrizko hitzak:

¹ Maitasuna egitea: Larrua jotzea

² Maitasuna arduraz egin: Arduraz larrua jo

³ Maitasuna ondo egitea: Txortan ondo egitea

⁴ Sexu harreman asko: "Folleteo"